

Libakoi









1987 ko abendua

2 Zenbakia

100 Pzta

IZKUTUKA





FOLKLOREA LANTZEN

Duela 13 urte hamabi gaztek, denak mutilak, sortu zuten Elgoibarko Izarra Elkarte barruan, jaietan egiten den Aurrekua ez galtzeko.

Aldaketa ugari jasan ditu taldeak, lehenengo 13 etatik Iñaki Gil da jarraitzen duen dantzari bakarra, eta orain urte bete Jose Inazio Sarasua Zuzendari izendatua izan zen, nahiz eta Lurdes Odriozola prestakizun teknikoen arduraduna izan.

Lan ugari eta gogor egin ondoren joan den Uztailan 23 an Lehenengo Nazioarteko Folklore Jaialdia antolatu zuten, Udalaren laguntzarekin, eta bertan bi aurkezpen berrik arrakasta ezinobea lortu zuten.

Aukera dugu gaurkoan Jose Inazioarekin hitzegiteko.

TXI.: Zer suposatu zuen taldearentzat jaialdiak?

J.I.: Jaialdia oso garrantzitsua zen eta herriaren erantzuna behar genuen aurrera jarraitzeko.

Ikastolako Frontoia txikia gelditu zen eta gaurregun mila lagunetik gora biltzea honelako jaialdi batean pozik egotea da.

Zuzendaritza 1986.ko Irailean hartu genuen biok eta Urria-Azaroan 1987.urteko plangintza gertatzeko hainbat lan burutu genituen. Donostiako Argia Dantzari Taldeko zuzendari den Juan Antonio Urbeltz, Galdakaoko andra Mari eta Portugaleteko Elai-Alai taldeekin genituen harremanen ondorioz gure taldea hobeto ezagutzeko ikusi zuten, nahiz eta larunbat arratsaldez, 7 etan, ensaioak egin behar izan.

Diagnostiko antzerako bat egin ondoren denek aho batez komentatu ziguten Luzaideko Dantzak ikastea izango litzatekeela egokia taldeak indartsu aurrera jarraitzeko.

Urtarrilean, batez ere mutilak, 4 eta 5 ensaio astean egin ondoren larunbat arratsaldez Portugaletera joaten ginen lanak zuzentzera. Dato bezala San Anton egunez 20 mutilek Portugaleten ensaioa izan genuen 4 etatik 7,30 etara.

TXI.: Urteko plangintza antolatzeko hainbat buruhauste izango dituzu.

J.I.: Bai, nahi baino gehiago. Urtebeteko esperientzia dudanez oraindik aldaketa ugari sartzen ari gara antolaketetan egokiena zein den topatu arte.

Lan-urtea sail desberdinetan banatzen dugu. Irailetik Abendurarte dantza bildumaren birpasa eta teknika hobekuntza sartzen dugu, bitartean jende gaztea sartzen bait dugu taldean.


Gaurregun mutilek eta neskek bina ensaio dauzkate astean. Urtarriletik aurrera lan berriak aurkezteko prestaketak hasten dira. Lehenengo mutilen dantza berriak sartzea pentsatuta dugu, honek esan nahi du lehen asteetan mutilek lau bat ensaio izango dutela astean zehar.

TXI.: Dantzarien zerrendan ikus dezakegu neskek mutilak baino gehiago direla.

J.I.: Zerrendatik kanpo badauzkagu beste 7 mutil 12-13 urtetakoak eta nahiz eta gurekin ensaiatzen hasiak izan Jon Lizarralde dute irakaslea. Mutil hauek osatzen zuten taldeak azken bi urteotan Eskolarteko Jaialdian Gipuzkoa mailan bi talde onenen barruan aukeratuak izan dira.

Baina aurten nahiz eta Jonek taldearekin jarraitu nahi izan, taldea osatu gabe gelditu da adin honekin futbolak garrantzia haundiagoa duelako.

TXI.: Ensaioei buruz non egiten dituzue ensaioak?



J.I.: Orain arte Azoka plazako azken pisuan egiten genituen. Oporrak bukatu ondoren Udaltxean eskatu genuen Polikiroldegiko gimnasia gure lokalean neguan ezinezkoa bait da baldintza minimorik ez duelako betetzen ondo egitea, eta Polikiroldegian sartu bitartean probisionalki herriko Institutoko Gimnasioan ari gara gure lana aurrera atera nahian.

TXI.: Zuretzat zer dira baldintza minimoak?

J.I.: Dantzarien kopurua kontutan izanik, gure lokalean ez gara denok sartzen. Aldagela bat daukagu eta bera oso txikia, dutxa bi, eta ur berorik ez da denentzat ailegatzen. Lurrean baldosa dugu, hotza bai oinentzat eta bai gimnasia lurrean egiteko. Barran ez gara denok sartzen eta espilorik ere ez daukagu, hau beste guztia eduki arte ez eskatu arren. Denok ezagutzen duzue gure lokala eta bi aldetatik estali gabe dagoenez, euria, haizea eta hezetasuna barruraino sartzean jasan behar izaten ditugu bertan.

Lokalaren egoera hau dela eta, Baionako Koldo Zabala irakasleak antolatu duen dantza-ikastaro bat Elgoibarren emateko asmoa zegoen arren, ezin izan dugu hona ekarri.

TXI.: Zein da taldearen finantzabidea?

J.I.: Bi iturri nagusi ditugu. Bata irakaskuntzatik jasotzen duguna eta bestea Udalarena. Lehenengoari buruz dozena bat dantzarik 200 umeren irakasle dira. Hauek 500 pezeta ordaintzen dute hilean eta diru hau dena Taldean sartzen da, nahiz eta kaleko jendeak diru hau irakasleentzat dela pentsatu. Udalaren laguntzari buruz, aldaketaren ondoren negoziaketak aztertzen gabiltza. Aurten 2,5 milioiko aurrekontua izan dugu eta hau gainditzeko dantzariak lan gogorra eta latza jasan dute.

Aipatzekoa da Foru Aldundiak antolatutako Aerobic ikastaroan Lurdes irakasle izanik, ateratako 60.000 pezeta talderako izan dira.

Bestalde Udalak erraldoien konparsa erama-teagatik irteera bakoitzeko 25.000 pezeta ematen zigun, eta Nazioarteko Jaialdiko bizpe-ran lau mutilek Mutrikura joan behar izan zu-ten erraldoiekin kalean zehar dantzatzeko diru hau ere taldean sartuaz.

TXI.: Udalaren erantzuna zein dela espero duzue?

J.I.: 1987.an Udalak antolatu dituen jaien egitarauetan gure partehartzea nabariena izan da.

San Bartolome jaietan egunero aritu ginen la-nean: Aurrekuak, Larrain Dantzak, Erraldoie-kin kalejirak, Dantza Solteko Txapelketa, Erromeriak, etab.

Garbi dago orain 20 urte eta gaur Aurrekuak ez dela egoera berdinean egiten, eta dantza-riek bezperan hurrengo eguneko kezka dela eta, beti oheratu beharko dute kuadrilako jendea jai giroan "gau pasa" egiten utzita. Eta gainera zentimorik kobratu gabe.

Horregatik espero dugu hau dena aztertu on-doren Udalak laguntza eskeintzea.

TXI.: Beraz, egoera larrian aurkitzen zarete, ezta?

J.I.: Uste dut gure taldeko arazoa bakarrik ez dela hau. Dantza talde bati gure Euskal Herrian parre egiten diogu eta European ze-har milaka pertsonak txalotzen ditu sariak ere beti irabaziaz.

Gure Herriko kultura tradizionala galtzeko arriskuan gaude eta uste dut batek bere kul-tura gabe ez duela asko iraungo.

Jendea euskerari garrantzi handia ematen ari den bitartean kultura tradizionala alde batera uzten ari da eta hori ez da herri bat iraunkor izateko bidea.

TXI.: Nahiz eta zuk oso beltz jarri laguntzarik izango duzu

J.I.: Bai, hala da. Batetik Portugaleteko Elai-Alai taldekoen laguntza txalogarria da eta bestetik gure aurkezpenetan beti izaten ditugu Herriko Dultzainero, Musika Bandako kide ba-tzuk eta Txistu Udal Taldea. Hauen denen la-guntzari esker eta dantzariak isil-isilean bu-rutzen duten lanarekin espero dut aurrera jarraitzea, eta honela gure herriko kulturaren barruan, folklorea zaintzea.



EUSKALDUN BERRIAK SOLASEAN

zergatik ikasi duzu euskara?



Bittor Nuñez.

Ingles bati edo frantsez edo aleman bati hau galdetzean txoruak izango bagina bezala hartuko gintuzkete. Berez ez litzateke galdera hau egin behar baina hemen erdera da nagusi eta erdera gure hizkuntza balitz bezala konportatzen gara. Bestalde ez da motibo praktiko bat aurkitu behar euskara ikasteko; euskarak ez du behar arrazoirik bera arrazoi delako. Zergatik ikasi nuen? Ez nekielako, noski!.



Begoña Iranzo.

Ni joan nintzen euskara ikastera gure hizkuntza delako eta Euskalerrrian nere ustez jende guztiak jakin beharko duelako, bestela gure hizkuntza galduko da.



Txaro Sabando.

Nahiz eta euskalduna sentitu, batzutan hizkuntzagatik, baztertuta sentitzen nintzen, beraz, hori da ni euskara ikastera bultzatu nauen arrazoi nagusia.

Ma Eugenia Gonzalez.

Euskal Herriko hizkuntza potentziatzeko eta lehendabizi gustatzen zaidalako.

OBJEZIOA: KATEAK

Susana Armendariz.

Hasieran sartu nintzen ez neukalako ezer egiteko, baina gero eta sartuago nengoenean, gustorago sentitzen hasi nintzen, nire hizkuntzari zerbait zor diodala sentitzen nuelako.



Tere Lobete.

Ba, nik esango nuke, bereziki hemengoa naizelako eta nire herriaren hizkuntza eza gutzea eta hitzegiteko ahalmena edukitzea gustatzen zaidalako.

Gaiñera oso hizkuntzazalea naizenez, nahiz eta ahalegin gogorra izan neretzat, oso lanpetuta bait nago, ba gustora nabil. Lanaren aldetik ere, beharra sentitzen dut.

Dakizuen bezala, gero eta jende gehiagok egiten du euskaraz eta nik ez nuke nahi, hizkuntzagatik baztertuta sentitu. Bestetik, nire gurasoek ez zekitenez euskaraz hitz egiten, ezin izan nuen haiengandik ezer ikasi.

Bukatzeko eta inportanteena nire ustez, euskararen etorkizunari begiratzuz, argi ikusten da gero eta gehiago zabaltzen ari dela, orduan ni horretarako prestatuta egon nahi eta behar dut.

Kontxi Prado.

Lehen arrazoia Euskal Herrira bizi izatera etortzea izan da (Alemaniara joanez gero alemanez). Dena den inportanteena nire semeak izan dira. Bestalde, gizonaren famili-giroa oso euskalduna da eta beraiek giro horretan hasiko ziren, ez nuen nahi ba giro hori apurtzea.

Hasieran nere kabuz hasi nintzen ikasten (garai hartan ez zegoen euskaltegirik). Gero lanean Ikastolara sartu eta poliki poliki ikasten jarraitu nuen. Oraindik ez dut bukatu eta ikasten jarraituko dut. Dena den haserako helburua bete dut euskalduna sentitzea.

Jose Cruz Montes.

Betidanik nire herriaren hizkuntza erakar-garria ikusten nuen eta hemen bizi eta gero, nire herriko hizkuntza jakin behar nuela pentsatu nuen.

Hasieran gaueskoletan hasi nintzen ikasten. Irakaskuntzan sartu nintzenean euskararen beharra gogorragoa sentitu nuen eta horrek bizikiago ikastera bultzatu ninduen.



Antton Alvarez.

Nahiz eta nere bizitza osoa hemen eraman, duela urte gutxi arte inoiz ez nuen sentitu, nola esango nuke ... beharra, horixe, euskararekiko beharra, edo nik ez nuen ikusten, behintzat.

Baina azken hamar urteotan herri honetaz asko ikasi dut. Eta neri hau beti asko gustatu bazait, orain bizitzako esperientziekin pixkat gehiago identifikatzen naizela esan dezaket.

Eta kontexto honetan, uste dudanez hizkuntza dela herritarrok daukagun ezaugarririk haundiena, hain zuzen horrexegatik animatu nintzen.



Arantza Agirre.

Ni euskara ikasten ari naiz, Euskalerrian jaio naizelako eta euskalduna sentitzen naizelako. Bestalde, nire gurasoek badaukite eta ez nuke hori galdu nahi.



Gloria Perello.

Nere etxean nik ezik jende guztiak bazekielako euskaraz.

Encarni Migales Ordoñez.

Nik euskara ikasi nuen, batez ere, gustatzen zaidalako hizkuntza hau. Euskara beste hizkuntzak baino bereziagoa da. Bestalde lan guztietan eskatzen bait dute. Jende guztiak ikasi beharko luke. Nik euskara ikasi nuenetik daukat lana eta jende mordua ezagutu dut.



OBJEZIOA : KATEAK

APURTU NAHIAN

Gaurko gazteen berezko kontzientzi eta baloreak soldautza betetzean bizitzen direnekin konparatuz gero, ez zaigu oso zaila gertatuko gaurko gazte gehienek soldautzarekiko duten jarrera ezezkorra ulertzea.

Autoritarismoa, sumisioa, hierarkizazioa, disziplina, zigorrak, sexismoa, izpiritu kritiko eza, ejertzitxoak zuzenduriko hegemonia ideologikoa, ejertzito atzerritar batera joan behar izatea (euskaldun askori dagokionez behintzat), eta beste hainbat arrazoi daude gazteen artean. Gehienek soldautzara joan beharra zorigaitzeko patua bezala hartu badute ere, beste askok egoera honi aurre egitea erabaki eta objetatu egin dute.

ZER DA OBJEZIOA?

Kontzientzi objezioa Hegoafrikan erabili zen lehenengo aldiz beltzek legeak behartzen zituen pasaporte bereziekin ibiltzeari uko egin ziotenean. Beraz, desobedientzia tresna bezala erabiliz, legea aplikaezina bihurtzea nahi zuten.

Soldautzaren kasuan, desobedientzia norberaren kontzientziaren eta militarizazioarekin kolaboratzera bultzatzen duen legearen arteko kontraesanaren ondorioa da.

Dena den, objezioak jarrera desberdinak biltzen ditu bere inguruan: ez-biolentoak, bere egoera pertsonala konpontzeko objektatu dutenak, zerbitzu zibil on batekin konformatuko liratekeenak, e.a.

Baina objetore gehienek (Euskadin 1200 baino gehiago eta Estatuan 7000 inguru) objezio kolektiboa egin dute.

ZER DA OBJEZIO(DEKLARAZIO)KOLEKTIBOA?

Legeak dioenez instantzia bat bidali behar da "Consejo Nacional de la Objeción de Conciencia" (CNOC) delakora objetatu nahi izanez gero. Kontseilu honen baimenik gabe ezin zara objetore izan. Instantzia horretan, datu per-



tsonal eta egoera militarraz aparte, soldautza ez egiteko norberak dituen arrazoiak aipatu behar dira. Arrazoi hauek, legeak dioenez, erlijioso, etiko, moral edo antzekoak izan behar dute; arrazoi politiko eta pertsonalak ez dira onartzen. Guzti hau errekurritua izan zen Epaitegi Konstituzionalean baina hala ere aurrera irten zen.

Dena den, orain arte objetatu dutenen arteko gehiengoak, aurreko puntuak alde batera utzi eta "Movimiento de la Objeción de Conciencia" (MOC) delakoak proposatzen duen deklarazio kolektiboa bidali du. Deklarazio honetan, objezio legea kritikatzeari aparte, epaitegia (CNOC) eta Zerbitzu Zibila ez direla onartzen aipatzen da.

Bestalde, Reserba egoeran egoteari ezetza emateko, beste deklarazio bat bidali eta kartilla militarra bueltatzen da. Horrela, soldautza egin ondoren objetore deklaratzeko zara.

DEKLARAZIO KOLEKTIBOA

Izen-Abizenak Herria

Adina N.A.N. Helbidea

Jaiotze egun eta herria

Militar egoera Rekluta kaxa

1. Soldautzarekiko kontzientzi objetorea naiz eta ez nago deklarazio honen zergatia adieraztera beharturik, ezin bait daiteke inor bere erlijio, ideologi eta sinismenari buruz deklaraziorik egitera behartu.
2. Pertsona guztien erlijio eta ideologi askatasuna garantizaturik dagoenez, inor ez da gai nere kontzientzi objektioa onartu edo ukatzeko.
3. Askatasun ideologikoa dela eta, soldautzari objetatzen diodan bezala, bere ordezko zerbitzu zibilarri ere objetatuko diot, militarismoaren eskema berberak bisortzen dituelako.
4. Pertsona zibila naizela onartzea nahi dut eta ez nazatela agintari militarrei lotu.
5. Neurri legal guztiak erabiliko ditut nire egoerari buruzko datuak zenbait erakunde eta pertsoneri eskatzen bazaizkio, (erregistro publikoan agertzen direnak ezik), famili eta pertsonaren intimidadearen kontra doalako.

..... nko ren an

..... izenpetua

Oharra: Konstituzioaren 16.2 artikuluan babesturik, deklarazio hau behin betikoa da nahiz eta Kontseilu Nazional honek azaldutako arrazoiak argitzera deitu.

Epaitegi Konstituzionalak onartu berria duen legearen arabera, ezin da objetatu soldadutza betetzen den bitartean. Egoera honen ondorioz, orain dela gutxi arte Francisc Alexandri katalana gartzela militar baten egon da; honek suposatu du "Amnistia Internacional" taldeak preso politikotzat hartu izatea. Badirudi, legegari begira, horrelako egoerak berriro eman daitezke, batez ere lehenengo objetoreei deitzen hasten zaienean. Gehienak Zerbitzu Zibilararen aurka daudenez edozein gauza gerta daiteke datozen hilabeteetan.

Objetore mugimenduak desobediencia zibila planteatua dauka jadanik, eta ez dirudi atzera botako denik.

ELGOIBARKO OBJETOREEN GUTUNA

Elgoibarren 18 objetore gara, denok insumisoak, eta prestazio soziala ez egitekotan gaude; gure arma erresistentzi kolektiboa da eta KAKITZAT-en funtzionatzen dugu Euskal Herriko beste herriekin bat egiteko.

Elgoibarren objezio mugimendua orain dela urtebete hasi zen lehenengo objezioekin eta 18 gaude dagoeneko.

Soldaduzka egin nahi ez duzuen gazte guztiok objetatzera gonbidatzen zaituztegu (informatzeko Gaztetxera joan).

SOLDADUZKARIK EZ



Dudarik gabe, mugimendu antimilitaristen retoa, gaurko gazteek duten soldautzaren eta ejertzitoaren kontrako kontzientzia, mobilizazio eta antolaketa egoki batetan transformatzean datza.

euskal mendizaleen federakuntza

ELGOIBARREN

Euskal Mendizaleen Federazioko egoitzan aurkitzen gara bere lehendakari den Pako Iriondo-rekin. Abegi ona izan du gurekiko eta, gure herriko Txitxilibakio aldizkarian argitaratzeko egingo dizkiogun galderei erantzuteko prest dago.

TX.: *Pako adiskidea, badakigu lehenago ere Federazio honen buru izan zinela eta, zein garaitan egon zinen jakin nahi genuke eta bigarren aldiz noizdanik zauden.*


P.I.: *Euskal Mendizaleen Federazioko lehendakaritzan, lehen aldiz 1971-XII-19 tik 1976-IX-2 ra egon nintzen. Garai hartan lan gogor eta garrantzitsua egin zela uste dut. Bigarren aldiz, berriro, 1986-VII-1 az geroztik.*

TX.: *Lehendakaritza honetan zeintzuk dira zure egitasmo garrantzitsuenak?*

P.I.: *Lehen agintaldian lan batzuk bukatu ezinik geratu zitzaizkidan. Esate baterako, Piedrafita-ko Aterbea, euskal mendizaleek buruan zerabiltena; baita Erreskate Taldea sortzea eta, bide onetik dihoazten beste hainbat proiektu, poliki-poliki aurrera ateratzea espero ditugunak.*


TX.: *Lehendakaritzan daramatzazun sei hilabeteotan, zein gairi eman diozu lehentasuna?*

P.I.: *Lehenen, Federazioa berrantolatu eta irudi ona berreskuratu; lehen irudi zaharritua edo galdua bait zeukan. Kontutan eduki behar dugu egun, Euskal Mendizaleen Federazioa, Kataluniakoarekin batera Penintsulako garrantzitsuenak direla.*



TX.: *Piedrafita-ko Aterbearen gaira itzuliz, bere etorkizuna, nola ikusten duzu?*

P.I.: *Aterbe edo babesleku hau bukatzea orainurrengo Kirol Kontseilu Goren-eko zuzendari izan zen Cuyas jaunak emandako agindu batek galerazi zuen. Hiru urte geldirik igaro ondoren, euskal*



mendizaleek hainbeste ahalegin eskergaitz eginez kostata lortu zutenak, berriro ere gaurkotasuna hartu du. Zentzu honetan, oraingo Kirol Kontseilu Goreneko Zuzendari berria den Javier Gomez Navarro jaunak bere oniritzia eman du lanak buka daitezzen. Hain zuzen, egun gutxi barru bilera bat izango dugu Espainiako Mendizaleen Federaziokoekin eta Gomez Navarro jaunarekin eraikuntza nola amaitu dezakegun ikusteko, jadanik % 65 a egina dago eta.

TX.: Gaurregun modan dago irtenaldi edo expeditzioen gaia, zer diozu honetaz?

P.I.: Aurtengo partean 11 irtenaldi egin dira Federazio honen babesean. Badira bere gisara irtenaldiak egiten dituzten mendizaleak ere arrakasta sonatuak lortuz. Irtenaldi hauekin gure mendizaletasunaren maila eta kalitatea erakusten dihardugula uste dut. Egun, urtearen buruan irtenaldirik gehien egiten duen Federazioa garaia esango nuke.

TX.: Zer esan diezagukezu Eusko Jaurlaritzak eta Euskal Mendizaleen Federazioak sortu duten Erreskate Taldea-z?

P.I.: Lehen agintaldian, guk Espainiako Federazioarekin egiten genituen bileretan beti hitzegiten zen Erreskate Taldea sortzeari buruz. Hemengo mendizaleak orokorki hartuta, laguntzarik gabe aurkitzen ziren Alpes-etako herrialdeetakoekin gonbaratuz.

Guk, izan ere, bagenituen haien erreferentzi onak.

Garai hartan istripua izandako bati laguntza ematea oso zaila eta nahaspilatsua gertatzen zen; ez bait zegoen antolamenterik, ez helikopterorik, eta laguntza talde profesionalik ere ez, etab. Erreskate talde honekin asko aurreratu dugula uste dut; arintasunean, efikazian, antolamenduari dagokienez, etab., beraz, giza bizitzak salbatzeko oinarritzko da talde hau.

Euskal Mendizaleen Federazioaren Eskola 25 hertzain prestatzen ari da: harkaitzetan, izotzetan, hormetako erreskateetan, mendiko-ski eta abarretan trebatzeko. Honela elkar hartuz eta denborarik galdu gabe istripua izaten den lekura baldintzarik hoberenetan hel daitezten.

TX.: Elkarrizketa hau gure herriko gazteriarri zuzendurik dagoenez, mendizale hauek ski, orientabide, igoera eta abarreko ikastaroak egitea komeni litzaiekeela uste duzu?

P.I.: Edozein mendizalek ongi trebatzia eta teknikaz jaztea nahi badu, orientabide, igoera eta mendiko-ski ikastaroak egin behar lituzke. Gertatzen diren istripu asko giza-akatzek izaten dira; horregatik estuasun bat izanez gero, bertatik irteko adina ezagupen eta prestaera, behar da. Gaurregun harkaitzetako igoeretan istripu gutxi izaten da. Goi-Mendiari buruz, neguan asko aldatzen dira gauzak,

eta neurri guztiak hartuta ere, ez da izaten nahikoa.

TX.: Istripuez ari garenez, jakingarria izango litzateke federatu-txartelari buruz zerbait argituko bazenigu. Zer da eta zertarako balio du?

P.I.: Aurki mendian dabilen jendea federatu dadin kanpaina bat egin behar dugu. Mendizaletasuna kirol bat denez, ezbeharrak ekar ditzake; batzuetan nolabaiteko zauriak izaten dira eta besteetan heriotzak, zoritxarrez.

Baditugu kasu batzu, esate baterako, min hartu eta federatu-txartela aldean izanik, laguntza guztiak hartu ondoren, ez du duro bat bera ere gastatu beharrik izan.

Baina izan dira kasu larriagorik ere; txartelik eduki ez, eta, erreskatea, laguntza, trasladoak, etab. direla medio, familiaren ekonomia zeharo murrizturik geratu denik, eta, guzti horri familiartekoren bat galtzea gaineratzen badiogu ...

TX.: Azkenaldi honetan mendietan zikinkeria eta narraskeria ugari ageri da, badirudi inork ez duela ardua handirik hartzen. Zer aholku emango zenioke mendira joaten den gasteria horri?

P.I.: Hemen puntu garrantzitsua pertsonaren heziketa da. Zahar eta gazte, denok dugu kontzientziatu beharra, mendia guztiona da eta berari begirunea sor diogu, errespetatu eta zainduz; bestela, urte gutxiren barruan zabortegei bihurturik ikusiko dugu. Zoritxarrez, zenbait leku ikusteak negargura ematen du.

TX.: Zuek Euskadiko "Klub"etako ordezkari guztiak parte har dezaketen batzarra

egiten duzue urtero, aurten noiz izango da?

P.I.: Erki Batzarra Abenduaren 13 an izango da eta bertan, boletin batzuen bidez, urte guztian egindako ekintzen berri emango da. Gainera, argitu gabeko zalantzarik inork eduki ez dezan, galde-erantzun saioa egingo da, noski.

TX.: Eta 1988 rako proiekturik bai?

P.I.: Hasieran Europa mailan ospe handia hartzen ari den 1. Orienteering-go Joanaldia egitea pentsatu dugu. Haatik joanaldi hori egin aurretik ongi zaildu eta prestaturik egotea komeni denez, ikastaro zail bat egingo da. Bestalde, Durangoko "Club Alpino Tabira" ren bitartez 1. Herrialdeko Haurren Joanaldia egitea ere nahi dugu. Sorte apur batekin, milabat mutiko bildu ahal izango da. Orain artean, Beteranoen Joanaldia egin ohi zen baina, gaztetxoak promozionatzea oso interesgarri iruditzen zaigu.

TX.: Eta, bukatzeko zerbait erantsi nahi diozu elkarrizketa honi?

P.I.: Eskerrak bere sostengu eta laguntzarekin lanean etengabe jarraitzera bultzatzen nauen federazio-taldeari. Harro nago elgoibartar izateaz eta nigana nornahi eta noiznahi edonor etor daitekeela, era honetan, guztion artean Elgoibarren izena goi-mailara jaso dezagun.

TX.: Besterik gabe eskerrak Pakori Txitxilibakioren izenean eta, beste bat arte.

JON

«~~~~~»

pinu batzu sartu zituzten haseran,
"pinu askotxo da hemen" esaten zuten beranduago,
hemengo mendietan pinua beti izan dela iruditzen zaigu
oraingooi

.....

"galtzen ari da" diogu orain,
"ia galdua da" esanen dute gerokoek,
"siempre ha sido así" ("sekula izan al da, bada?")
irudituko zaie ehun urte barru




Munduko beste leku guztiek bezala, gureak ere badu bere historiatarren, ezaguna izanarren zinez gordina ageri zaigun gertaeraz jositako historia triste baten antzekoa. Olaso-Altzolatarraren garaitik hona ekaitz zabar batek astindu izan duen gure mendiarteko ibar hertsiaeren historia.

Bere etxez jositako soroetan nabari daitezkeen aldakuntzak baino sakonago antzematen dira, errex, hemengo ohitura eta izakeretan emeki edo bortizki sartu zaizkigun astinaldien ondorioak.

Gehiena bilakatu zaigu zikin eta urrun.

Alferrik aipa genitzake hemen denbora joanetako zorion eta desioak. Alferrik orduango istorio eta kontuak erakartzea. Alferrik ezer aipatzea. Baina hiltzear den su batetako txingarra berotzen saiatzen den legez, geroa eustenahi batek gauzka hiltzoriko dantzan. Pausoak ongi ez markatuarren, dantzan diraugun unea, behintzat.

Eta ausardia barkatzen badidazue (agian zeuok nik baino lasaiago edo ezberdin ikusiko bait duzue), herri honetan bi mila aldiz jaso izan den gertaera baten zertzeladak agertuko dizkizuet. Inori ezer argitu nahi barik, hitz hauek iradokizun ere gerta ez daitezen esperantzan. Zeuok, ni neu edo beste edonor bezala, hor baitzaudete, ziurraski herriarekiko saminetan murgildurik, dakusagun gero ilun hori nola argitu asma ezinik.



Guk asko badakigu ere (herri honetan denok asko dakigu eta) moldakaitz batzaigu geroaren antolaketa eta negargarri oraina.

Neuri ere halakoxekoa zaidalako eta oraindik oiloari arraultzeak nola jarri esateko mania sartu ez zaidanez, ez dizuet hemen ideia bikainik, hitz sakraturik jaurtiko. Ez zaitut ez bare ez asetuko. Eta hitzongatik inoren etsipena edo esperantza handituko balitz, bihotzbeheretia dela aitortu beharrean suertatuko litzateke

edonoren aurrean eta edonon. Biguina dela, alegia. Bi mila saminek edo malkok ez bait dute ezer altxatzen, salbatzen. Eta ez nadin orain hitz serioegitan sar, gorringoetaraino bait gaude hitz soil eta negartietaz. Hileta tonotaz. Etsituaren negarra mutuaren deiadarra besterik ez da eta.

Hor doakizue bada, Jon-en historia baino gehiago herri osoaren egoera adierazi nahi lukeen zera. Alferrik izango ez ote denaren susmoa sudur puntan izan arren, Jon nor den edo behin zer jazo zitzaion kanporatzea alferrik den bezalaxe.

Akordatzen haiz?

.....
-Bai akordatzen naiz. Nik orduan Eibarko Armerixan ikasten naban, ondinek Kajaorrosian lanian asi-be nitzan.

Orduan Alkortaneko tabernan kartetan eitxen genduan. Diruz ere, danok gaizki eta badakizu, astia amaitzeko sosa biar.

Baña aspalditxuan ez dot Jon ikusi. Donostian bizi denetik gitxi etortzen da hona. Badakizu, ori beti bere euskera gora eta bera. Oin pelikulak eitxen edo nik eztaikitx zetan dabilen. Zuk galdetu diazunak ere badauka orrekin zerikusixa. Orduan, ondiok Jon etzan ainbeste sartzen olako asuntuetan baiña egun aretan arratsalde txarra pasau zaban.

Torres bizirik zauan ondiok. Gero ill zaben baiña ori baiño iru ero lau urte lenao izango zan.

Len esan bezela, gu Alkortanekuan geunden eta Joxe Martin, Izarraitz aldian morroi ibiltzen dan ori, sartu zan. Betiko moduan zixen orduan ere; mozkor-mozkor eginda eta zikiñ. Kantuan ziarduen eta gure atzian zauan beste mai baten jarri jakun. Guk ez gendun kaso aundirik eifñ eta hala ere berak trikitixak kantatzen zitxuan, atenziua deitxu naixan egongo balitz bezela.

Berandutxuao Torres agertu zan an eta euskeraz ez berbaitxeko agindu zion oso modu txarrian Joxe Martiñi. Onek ezer erantzun barik aldeifñ zaban.

Nik Torres ikusi nabanian, pentsau naban olako zeoze pasauko zala. Aura beti zebillen berdin. Ni beintzat ez nitzan batere arritxu baiña Jon bai. Arritxu baiño geixao, gañera, asarratu eifñ zala esango neuke, eta antxitxika erten zaban andik guk kartak eskuan geunkazela

Iagata. Uste doranez Joxe Martiñekin egoteko intenziuaz juan zan.

Gero, bueltau zanian, Jonek Torresekin segitxu zaban berbetan denpora askuan baiña geixegi berotu bae. Azkenian etxera zixela esan eta aldeifñ zaban. Egund aretan geixao ez naban ikusi.

Aura asarre jarriko zan seguru! Nik ezta kirana Joxe Martiñekin berbaindakua da, baiña an tartian izango zaben zeoze.

Zeatik etzara berakin egoten? Interes aundixa badozu emango dizut Donostiako aren telefonua. Artuizu momentu baten, hor daukazu lapitza: sesentaikuarto, amar, ogetazazpi. Billatzia gaitza da baiña akaso ... suertia baka. Bestela, kanpora ez padixe, ementxe arrapaukozu aura datozen bakaziuetan. Etorri orduan naibo. Bale ba. Ez orreatik. Urrenguan ere, zu etorri.

Te acuerdas?

.....
- Cómo no me voy a acordar. Aquel día me purrieron mucha tela. Era uno de esos julepes que echábamos en el Alcorta cuando hacíamos C.O.U.

Pero tú que quieres saber exactamente, lo que pasó allí o cómo lo tomó Yon? Lo único que puedo hacer es hablarte un poco y a mi manera de lo que me acuerdo. Vale?

Me acuerdo que Yon se fue a toda hostia. Nos extrañó porque iba ganando y por aquel entonces andaba colgao de pelas. Pero no sé porqué se las piró.

Creo que hubo un jaleo con Torres y un casero. Sí, ya recuerdo. No sabes quién es Jose Martin? Sí hombre, ese que anda siempre medio templeo y que va por ahí currando por los caserios.

Yon le conocía de antes, creo que de siempre. Ya sabes, de cuando de chaval iba a la chabola que tenfan por Madarixa.

Torres le debió decir algo a Jose Martin porque estaba hablando en vasco. Ese Torres siempre ha sido un cabrón. Te acuerdas de cuando el juicio de burgos? Y el hijo puta todo el día en la ventana.

Bueno, la verdad, yo no me enteré mucho de la movida pero Yon se debió mosquear la tira porque salió de allí como si se le estuviera quemando la casa.

Luego, según me dijo Xabi, Yon se picó porque el casero no le dijo nada al Torres.

Ya sabes cómo es Yon, de otra cosa no te hablará. Siempre está con su dichoso euskera, que "a ver si aprendes que ya es hora", "venga Atano que no puedes andar siempre igual".

Siempre anda con la misma historia. Ya sé que tiene razón pero es un coñazo oír siempre lo mismo.

Y a todo esto, por qué me preguntas estas cosas?

.....

- Akordatzen al haiz?

.....

- Akordauko enok pa? An jauazen Luix, Atano eta Jon nerekin batera. Beti esan najuan nik Joni hori, Torres txaketas ostia ori putakume bat zuala. Nik banekixan aura len guardia zibilla izandakua zala. Arekin etzala iñun gauza onik. Beti jaukan asarrerako gogua ta nastia. Orduan ere orixe eiñ juan arek. Txarri zikiña!

Joxemartin kantuan jauan, betiko moduan aurrera ere, muturra ardauaz galanki gorritxuta. Goizian goizetik ibilliko zuan aura ardaudanian. Len armusau ere ardauda eitxen juan arek. Beti jauan tente egon eziñik. Bai, kantuan ari zuan da Torres alu ori agertu zuan orduantxe. Eta Joxemartiñek, badakik, aura etzuan konturau ere eiñ, han segitxu juan kantuan, altu ari zuan gainera, betiko bertzoren bat edo antzeko zeozer izango zuan orduan ere -orrek etxaukak besterik eta-, ba orduan esan jiuuan Torresek euskeraz barbarik ez eitxeko. Insultau ere in juan txarri arek. Len esan dixat arekin etzala onikan. Ori bai egixa!

Baiña ik Jonek zer ein juan jakin nai dok ezta?

Ba asko asko enok akordatzen, baiña asarratu beintzat eiñ zuan. Arek eruan juan saltakia! Joxemartin arrapatzeko ustiaz urten zuan.



Gero, or, Mala aldian artu ei juan. Nik etxakixat ze Dios esan juen bixen artian baiña Jonek ekarri juan aserre ero nik etxakixat zelako arpeixa bueltan.

Emen egon zuan gero Torresekin berbetan. Arekin egon ondoren etxera zixela ta etzala geixao ertengo bixamonerarte esanaz ezku-tau zuan.

Guk kartetan segitxu genduan eta azkenerako Torres ere jun zuan Alkortanekotik. Gero, bantik, garbitxu eiñ juen aura ere. Oiñ ze pentzau etxuat jakiten baiña len olakuak akabautakuan poztu eitxen nitzuan.

Oiñ diferentia dok baiña ...

Ni, baiña ori guztiori, nik baño obeto Luisek esango dik. Bai, ontxe arrapaukok aura Kajarrorosian, beranduarde eitxen jok lan eta. Len egon aizela berakin? Orduan au dana alperrik kontauko hixan. Urrenguan ere, zeoze biabok i etorri ari lasai billurripe, ni geixen-tan etdixan arrapauko nok. gitxi etretzen nok aspaldixan, izan ere, oiñ ze egoten dok pa kalia? Nik beintzat etxuat ... bai i, agur bai. Naidokenian etorri berriz ere.

.....

.....

- Oroitzen al haiz?

Alkortaneko tabernan, orain Pelouse deneko hortan, eserita hengoen, gaztaroko lehen julepeak jostatzen hasi berria. Hi Xabi eta Luixen artean hintzen, bateko haik dardarapean ezkutu ezinik. Voy, Zazpirehun eta hogeitazazpi pezeta platerean. Setecientas veintisiete. Atanori julepe eman hioaneko hartaz ari nazaiak.

Ipurdia sila gainean ezin kabitturik heunkan dena irabazi huenean. Horrelako dirutza, ia ehun eta berrogeitasei duro, txikiegi suertatzen zitzaian panazko fraken faltrika txikian sartu nahiean ari hintzenean ikusi huen arratsalde hartan estraineko.

Senitartekorik edo inguruan ba ote zen begizatzeke, hainbesteko dirutzak hunkituko ez bahindu bezala, zeharka begiratzen hasi hintzenean ikusi huen hik Joxemartin.

Aurrez ezagutzen huen Azkoitiko mutilzahar hura. Ikusia huen Larraskanda aldean batetik bestera morrontzan, garoa zela, ikatza zela edo beste edozein lan eskax sarritan agertzen bait zitzaion han hemenka.

Betiere mundu aldrebes batetako gizako baten gisan ikusi izan huen. Mendian sortutakoek duten mundu eksklusibo bate n emaitza berezia. Inoiz ez huen gai arrotzetaz mintzatzen somatu. Harek beti zian dema, bertsoa, ganajatekoa edo baserriari atxikiriko beste edo zein gai. Eta ardoa.

Orduangoan ere haitzur bikaina zeraman soinean. Mutturra goiz osoz berotzen egondakoaren antza hartzen hioan. Etxetik irtetzean zuria zen belztutako alkandora gerrian suelto zeukan. jertsea galtzerpean eta baxoerdia eror zorian eskuan. Tantoak hara eta hona isuriz, alkandora ilundua erabat gautu nahi balu bezala.

Kantari ari huen: "urruti eta nere bihotza nahigabez erdibiturik gelditu nintzen tristerik ..."

Kasu gehiagorik egin gabe, buruari buelta eman ez, julepeko karta artean bermurgildu hintzen.

Hiru esku ez hituen pasa zaharrak izango, heure atzekaldean bapateko isiltasuna somatu huenean.

Torres Joxemartini gaizki-esaka ari zitzaion: "... jodio borracho, ya te he dicho antes que hables en cristiano..."

Joxemartinek, mozkorrondoaren eragin gorria zurbildu zitzaionlarik, tutik esan gabe eta begiak non jarri ez zekiela, baxoerdia marmor gainean utziz, atealderantz jo zuen. Atzerantz begiratu gabe, hoben astun baten jabe balitz bezala, isilpeko ihes batez alde egin zuen Alkortanekotik.

Hik jokoa utzi huen bapatean. Buruan zurrunbilo bat sentitu huen. Torresek esandako hitzak, ozenki jaurtikiak izan hituen, eta garbi aditu ahal izan hituen.

Amorroak odola berotu zian begiak bustiarazterarte. Azala gorri eta eskuetan dardara. Ezin huen kartetan segi.

(Aulkia kolpera baztertuz presaka irten hintzen lagun harrituaren tartetik. Azkar hindoan San Franzisko kalean behera Joxemartin harrapatu nahian.

) "Torres putakumea. Okerka sortua. Guardazibil ahalena. Ez haiz gogorrenarekin sartu ez. Idiota. Hijoputa. Urte t'erdiko minak eramango al hau Olasora ..."

(Potrankaneko atean harrapatu huen Joxemartin, orduantxe Malako iturrian edateko asmoz makurtua huen, eta hik: "Baina Joxemartin, zergatik ez diok ezer erantzun? Zergatik ez diok kontratik egin?"

) Eta Joxemartinek: "Erderaz ezer esateko gai ez nauk mutil, eta gainera zer esan behar zioat nik? Heuk esan iezaioke nahi baduk. Hi gaztea haiz". Zotin batez mukiak goruntz altxa zizkian.

(Iriondonean sartu huen berriz ardo eske, berriro ere ihesi eta hi han gelditu hintzen, Malako kruzean zutik, babu baten gisan. Zer egin jakin gabe.

Joxemartinek munduaz egindako gogoetak zetozkian burura. Arrazoi huen. Aparteko mundu batetan bizi huen, bai. Baina heuk ere mundu horretan huen partaidetza ozenki agertu zitzaian begi-bistan. Jakin egin huen.

Borobil handi baten barnean gero eta txikiago zen borobiltxo batetan partaide ikusi huen heurre burua .

Merkurio kiloterdi batek, ttantto bat irensten duen bezala irentsi zorian somatu huen hire borobiltxo.

Hotzikara eta beldurra nabaritu huen. Negargurea.


.....

BENWANK

Lan galduaren bila.



DANI







3
MOTXILAN EKARRI IAKO UR -
BOTILA IREKITZEN.




LAUKHILA BEG DATU
TA EZANON NURE...
MIM... IZ'ERAK DI...
SOLA. JATEKO OR...
DUA



LIGURUA IRAKURRI ONDUREN, JANARIA LOTU NAHI DU.





ILUSIO HANDIA
EGITEN BAIT DIO
ABENTURA BAT
EGITEA!


JE, JE




INDIANA JOUNS
MENDI GAILURRAREN
BILA !! Joi, Joi, Joi!

XELEBREA BENETAN

XAHARRA!



GLGLGL!!



DANI-87

hasier .. etxeberria ... solaskide

IÑIGO ZEARSOLO: Elgoibarren jaioa haizela bazekiagu, baina asko gehiagoriz ez.

HASIER ETXEBERRIA: Bueno, jaioa bai, eta bizitua ere bai. Bederatzi urte ingururekin hemendik irtetzen hasi nintzen Donostia alde-runtz. Eta gero bizitzak eraman nau hainbat lekutara. Hoi en artean Kastila dago, bertan sei urte igaro nituelarik zenbait ikasketa egiten. Soldaduzka ere bertan egin nuen. Harez geroz Donostia eta Hondarrabian ibili nauk; azken herri honetan zazpi urte daramatzadalarik bertako biztanle bezala. Bertan, beste zenbait gauzaren artean euskarako klaseak ematen ere ibilia nauk.

I.Z.: Zertan ari haiz orain?

H.E.: Bi hitzetan esateko, Euskal telebistan kultura eta dramaren arduraduna nauk. Horrek zera esan nahi du: ez dudala programa konkretu baten ardura; baizik eta gutxi gora behera dozena bat programaren koordinakuntza bultzatzailetza etb. Esan daiteke atzeko lan bat dela, baina guztiz interesgarria. Azken batetan, guk arlo burua deitzen dugun funtzio-tan ari naiz.

I.Z.: Zehazki, nola eta noiz hasi zinen idazten?

H.E.: Neronek baneki! Esan daiteke txiki txikitandik hasi nintzela idazten. Aitak umeen deia izeneko aldizkari batetan, aldizkari izena merezi baldin bazuen behintzat, idaztera behartzen ninduen. Harez gero, garai hartan toki hauetan euskera gutxi entzuten zenez Arrate aldean zeuden lehiaketa batzuetara aurkezten hasi nintzen. Argian ere pare bat urtetan Elgoibarko karta idatzi nuen ezizen ezberdinekin. Musikaz ere idazten nuen. Geroago, unibertsidadeko garaiak datoz, eta Valladolideko euskal ikasleek asanblada barruan Porru Salda izeneko aldizkari bat argitaratzen nuen. Azken batetan hango

euskaldunen biltegi izan nahi zuen. Ostantzean, paraleloki, beti jardun izan dut idazten; kazetaritzan baino gehiago kreazio lanetan, ipuingintzan batez ere. Horretaz gain, betirako izkurtuan geldituko diren nire poematxoak ere hor-
txe dauzkat.

I.Z.: Izan al huan norbaiten eraginik?

H.E.: Bai. Lehenengo momentuetan etxeko eragina izan nuen bati bat, baina bakoitzak bere adoleszentzia pasatzen duenean eragin hoiek ahaztu egiten direla uste diat. Etxeko eragin hoiek baino garrantzitsuagoak diren beste batzuk badaudela uste diat. Nire kasuan, bi eragin nagusi izan nituen:

1) Alde batetik gure hizkuntzaren egoera soziala aipatuko nuke. Hau da, euskaraz ez zen idazten, edo eta idazten bazen ere oso gutxi idazten zen. Horrela, tarte handi hori bete beharra zegoela pentsatze horrek nolabait nire idazteko orduko akatsak justifikatzen zituen. Baina arrazoi honek ez du luzarorako balio, batez ere kreazio lanetan. Beste erreferentzia batzuk topatu behar dira.

2) Kreazio lanetan, nobelak, idazleak etab. maitatu behar dira eta irakurketa hoi en eraginez aurrera jotzea deliberatu nuen. Baina aurrera jotzea hestutu gabe, hau da, bertatikan bizi gabe. Nik orain dudan lanbi-deak ez du zerikusirik zuzenik nire kreazio lanarekin. Irakaskuntzan ere ibilia naiz eta horrek beti dakar nolabaiteko testuak sortu beharra. Beti etorri zait ongi idazte mundu hori; eta orain euskal telebistan zer esanik ez! gidoiak etb. egiteko beti etorri zait ongi idaztea. Mesede handia egin dit niri euskaraz idazten jarduteak.

I.Z.: Zergatik beti, edo gehienetan behintzat ipuinak?

H.E.: Jakingo duk segur aski ipuina hasteko modu bat dela. Ipuinak adina poema idatzita nago; eta agian poemak ipuinak baino gehiago. Baina poemak istorio hori oso berezia da eta oso gauza itxi eta pertsonaltzat dizkiat. Ipuinei gagozkielarik, lehen esan dudana bezala, hasera bat direla uste dut. Nik pentsatzen dut, pelikulak egin baino lehenago kortoak egin behar direla. Hala ere gaur egun ezberdina dela konturatzen nauk; ez duela zertan ipuinak nobelaren atari izan behar. Ipuina nahiko gorputz da ariketa literario bat egiteko. Horrek ez du esan nahi beste espresatzeko hainbat modu baztertzen ditudanik. Artearen esparrua

oso zabala da; eta aspaldian ezer egin ez badut ere, lehen pintatu egiten nuen; tapizak egiten nituen; zeramikak, eskulturak ... beti izan naiz artezalea. Nahiz eta nire fazeta izkutuena bera izan. Adibide bezala zera esan diezazuket: duela urteak, hemen, Elgoibarren, Ongarrik Elgoibarko artisten erakusketa bat antolatzen zuela; bizpahirutan parte hartua naiz. Eta azkeneko batetan, mesedez gehiago ez aurkezteko erregutu zidatela oroitzen naiz. Baina espresio bide guztiak dira onak zer esana dagoenean. Azken batetan, norberak lortu behar du espresio bide hori; eta nire kasuan idazteko espresio bide horretan sentitzen naiz gustoren. Honek ez du esan nahi bihar edo etxi brotxa zahar bat hartu eta pintatzen hasiko ez naizenik.

Momentuz, narradorearen posizioa euskara batuan ikusten diat. Nik nahiago nuke Elgoibarko berbetia gehixao sartzia baneuke, baina alkantze txikiagoa edukiko lukeela uste dut, eta euskararen etorkizunari mesede gutxiago egingo liokela. Hortaz gain, ni neu, euskara batuarekin mugitzen naiz errazen. Kolokialismoren bat sartu beharra izango banu, (Elgoibarkoa nahiz beste edonongoa), estudiatzen hasi beharko nuke. Beraz, nire iritziz, gaur gaurkoz % 95 batetan euskara batuan idatziz behar dela uste diat.

I.Z.: Hire lehenengo ikasketak ikastolan burutu hituan. Nola baloratzen duk orduko eta gaurko ikastola?



I.Z.: Beharrezkoa iruditzen al zaik euskera batuan idaztea?

H.E.: Beno beno! hori ... uff! zaila da. Gaur gaurkoz baietz esango nuke. Hala ere, Elgoibarren gertatzen diren ipuinak badizkiat; Elgoibarren eta posgerran, San Bartolometako zezen kontuak dira, eta jakina, elkarrizketa edo dialogoak ez dizkiat euskara batuan egingo. Edo, zer esango diat. Hondarrabiko arrantzale ipuin bat egiten badiat, dialogoak ez dizkiat batuan egingo. Hala ere ez diat ziur esaten hau guztia.

H.E.: Beno, hori ez da erabat egia. Bost urte nituela eskola nazionaletan hasi nintzen, orduan ez bait zegoen ikastolarik. Ni han nengoela sortu zen ikastola. Ezagutu nuen eskola nazionalen Señorita Teo eta Señorita Satur zeudela oroitzen naiz. Don Francisco izeneko gizon nahiko berezi bat ere bai. Baina hura zer zen ikusteko aukera handirik ez nuen izan, segituan sortu bait zen ikastola. Ikastolan andereño Itziarrekin, Nekanerekin, andereño Ionerekin etab. Ni behintzat, zoriontsu izan nintzen ikastola hartan. Infrastruktura aldetik desastre bat zela ere aitortu behar dut;

pisoean ibiltzen bait ginen. Baina bazituen bere abantailak ere: gaurko ikastola masifikatua ez izatearena, alegia. Zaharrenak bi gine-la oroitzen naiz, Ernesto Zubiaurre eta ni. Eta hau nire ondorengo ikasketa guztietan tokatu zait. Lizeo Santo Tomasean euskerazko ikasketak jarraitu nituen eta letraseko bidetik hiru bakarrik gindoazela oroitzen naiz. Gaurko ikastoletan horrelako egoerarik ematen denik ez dut uste. Gaurko ikastola interesatzen ez zaidan arren, kanpotik begiratuta masifikazio bat iruditzen zaidak. Metodologia eta azpiegitura aldetik gaurko ikastola hobeagoa den arren, ni, lehengo ikastolarekin gelditzen nauk, erromantizismoz, besterik ez bada ere.

I.Z.: Hasier, betiko galdera, nola ikusten duk euskal literaturaren alorra.

H.E.: Egia da, euskal literaturan zenbait idazle medio direla, Ion Juaristi, Joserra Garzia, Mikel Hernandez Abaitua (beste Elgoibartar builoso hori) hauts batzuk piskat astindu egin direla: eta ni asko poztu naiz. Euskaldunok elkarri hitz egin arazten hasteko ordua dela pentsatzen dut. Bada elkar zirikatzten hasteko ordua. Bestela oso aseptikoak gaituk beti. Ez diogu elkarri minik egin nahi, idazlearen jokiera errespetatzen dugu, etab. Baina hemen zera da egia: jipoi eman behar del a ezker eskuin. Azken batetan, jipoi emate horrek eta dialektika piska bat sortzeak eramango gaitu euskal literaturari benetako pisua ematera. Euskal literaturarekin jarraituaz, oso bide ezberdinak daudela pentsatzen diat. Hor dago Bernardo Atxaga bat; Laura Mintegi bat, teoriar zerikusirik ez dutenak. Baina nik uste dut guztiak direla beharrezkoak, eta gero norberak aukera beza bere bihotzeko idazlea eta berari jarrai diezaiola. Euskal literaturak guzti honekin normaltasun batetara iritsi behar du, eta nik, bide hoiien hasetatan dagoela uste dut. 1987. urte honetan, alegia. Posmodernismoko garai harri-garri eta ilun hauetan.

I.Z.: Idazlea izateko derrigorrezkoa al da dohain berezi batez jaiotzea?

H.E.: Berez jaiotze hori toreroei bakarrik dagokiela uste diat. Gauza askorik ez dakidan arren, lehen ere aitortu diat artearekiko nola-baiteko zaletasuna eduki behar dela. Kontutan

- hartu beharreko gauza zera da: idazle denok desberdinak garela. Egia da, bai, nik ez dakit zein adinetan sensibilitate bat pizten dela. Sensibilitate hori batzuk landu egiten dute;
- beste batzuk aspertu egiten dira ... Guzti honekin zera esan nahi diat: teknika batzuk menperatuta, irakurketa batzuk egin eta gero,

- gutxi-asko, zela edo hala, zer kontaturik daukanak idatz dezakeela. Berandu hasi diren idazleak badaude; baita liburu bakarra idatzi dutenak ere; eta milaka liburu idatzi eta bat bera ere ona ez dena. Denetik dago. Beraz, ez dut uste jaiotzez ekarri behar denik idazteko
- horrelako izar bat.

I.Z.: Irakurleen artean onartua hegoalde pentsatzen al duk?

H.E.: Ez dut uste. Ez dut uste lau katuk baino gehiagok irakurri dutenik nire liburua, nahiz eta nahiko ongi saldua egon. Liburu horrek niri ere lotsa piskat ematen dit. Kontutan eduki behar da lan zaharrak direla eta danetatik dagoela; ipuin batetik bestera oso salto handiak daude.

I.Z.: Noiz izango diagu kalean Hasiarren hurrengo lana?


H.E.: Hurrengo lana oraintxe jaso berria dudan Bilintx saria izango da. Datorren urtean haurrentzako ipuin bat izango da, ilustrazio eta guzti. Beraz, datorren urtean fetxa hauetarako, Azaroan, aterako da Elkarren eskutik. Bilintx saria failatzeko egunean bertan emango da argitara. Mementuz hori da guztia, tartean beste sorpresarik lortzen ez badut behintzat. Zeren eta badauzkat beste asmo batzuk, baina beti hobe izaten da ixilpean gordetzea.

iñigo zearsolo

EZETZ ASMATU!

IKUSMENA IRUDIMENAREKIN LANDU EZAZU

AURKI ITZAZU MARRAZKI
HONETAN ARDI BATEW
BURUA, SORGIN BATEW PUR-
PEGIA ETA XAGU BATEW
BUZTANA. EA, ERRAZA
DA ETA.



MIREL CORNEJO

1981

IZKUTUKO MEZUA

7 tik hasita eta sekuentzia

jarraituz bete hutsunea.



Joko honetan letra ordeez zeinu berezi batzu jarri ditugu. Zeinu bakoitzari letra bat dagokio. Hasi konbinazioak egiten eta ea testua osatzen duzun. Bestetan bezala, zazpi zeinuren esanahia asmātu beharko duzu. Iñaki Zabaletaren «110. Street-eko geltokia» liburutik jaso dugu pasarte hau.


GEL O Δ I I Δ Δ □ □ ▲ O Δ □ Z E □ □
 F A U I U ■ Δ O ▲ I Δ □ □ Δ □ L Z E □
 □ Δ I Z E □ ▲ U E ▲ ■ O Δ ▲ I Δ O □ □ Δ
 □ □ B U □ □ E B □ □ E □ M O H □ I Δ
 H U ▲ B I L D U Z E □ E □ □ B □ □ □ □ Δ
 E ▲ O □ I Z I Z I O □. Δ □ Δ E Δ E Z Δ O
 Z O Δ Δ O □ □ □ □ ▲ □ U E □ □ H O M E -
 L E ▲ □ □ U E G I □ Z E □.

- ▲ =
- =
- △ =
- △ =
- =
- =
- ◇ =

DENBORAPASAK

TELLERIA

B R O M A L L I V A O I N
 A E K N E K A N D D T U B
 I M A N O L A B N I I E D
 D E A N O N G O E O R R I
 N T A T E R I Z D G E I D
 U U R N D R R N A L I A N
 X R A A I H O R E R A T E
 T K E G X K E K E A L E M
 R O Z T E T U G I E O L Z
 E I I R X O E T S T T A I
 L P U E N B B A T E R B E
 B E U A A A O B A L A A Z
 A V A L V E R D E L A Z M



Aurki itzazu euskal 20 kantarien abizen, edo beraien diskoetan erabili ohi duten izen artistikoa. Beti hitz bat besterik ez da azalduko. Sobratzen diren letrekin kanta zahar baten estrofaren zati bat osa daiteke Gandiagaren «Hiru gizon bakarka» liburuan agertzen den bezala.

Bikotea haserre

Gure artean asko diren pareja horietako bat zen. Gauaz haserre sartu ziren ohera, elkarriz hitzik egingo ez dieten promesa irmoarekin. Batez ere, hori, elkarriz hitzik ez egitearen promesa.

Eta Joxek, hurrengo goizeko seiretan iratzartzeko abisua utzi behar Mariasuni, ohi bezala. Ohi bezala ez, hitzik egingo ez zutenaren promesa eta mehatxua egin bait zioten elkarriz. Eta paper batean uzten dio Joxek, Mariasuni, oheburuan: «Bihar goizeko seiretan dei mesedez, falta gabe».

Baina Joxe hurrengo eguneko hamarretararte ez zen iratzarri. Haserre biziz iratzari ere, seiretan lanera joateko dei ez ziotelakoan, Baina horretan zegoela, paper galanta bere oheburuan, eta paperean: «Joxem altxa haldi, seirak dituk eta».

DENAK BERDIN

Mutil bat aspaldiko lagun batekin aurkitzen da:

—Aizak! Jakin diat izugarritzko andregai piloa izan duala.

—Bai, andregai batzuk egin dizkiat, bat.

—Izenak esango al dizkiak?

—Nola ez! Zuriñe, Garbiñe, Eguzkiñe...

—Denak berdin bukatzen al diate, ala?

—Bai, motel! Nitaz nazkatu eta beste batekin joaten dituk.

NERE BIZITZAN GAUZA NABARIEN BAT EGITEA NAHINKO NUKE... AGIAN BURUZAGI OSPETSUA IZATERA IRITSI ETA MUNDUA ARRISKU NUKLEARRAZ SALBATU, GOSETI DENEI JANARIA EMAN, EDO PLANETA URRUTI-ENETARA HEGAZ EGIN...

BAINA, NOR ENGAINATU NAHI DUT? AZKEN FINEAN, TIPO ARRUNT BATEN BURUAREN GAINEAN ESERITA DAGOEN EULI TXIKI ETA BELTZ BAT BAINO BESTERIK EZ NAIZ !!



SOLUZIOAK

$$(38 \times 2) - 5 = 71 \quad (71 \times 2) - 6 = 136$$

$$(7 \times 2) - 2 = 12 \quad (12 \times 2) - 3 = 21 \quad (21 \times 2) - 4 = 38$$

Esaldia: Baina ene kantua bidean geratzen da hegazti itu bat bezala.

Imanol, Labegeri, Lekuna, Zabalera, Etxart, Artola.

Knorr, Elizmendi, Bergaretxe, Lupe, Martikorena, Idriñ, Rekondo.

Kantariak: Lete, Iriondo, Lertxundi, Urko, Valverde, Laboa, Villamor.


• IZKUTUKO MEZUA: Geltokirik kanporatzean fruitu tro-pikakal saltzen ari zen puertorrikotar anbulante baten ma-hatra hurbildu zen eta bananak erosi zitkion. Paperezko zo-rtroan sartu eta hoteleratu egin zen.

torizu eskua

«» «» «» «»

Gazteriaren irtenbideaz

1. Etxera nentorrela
nekatuegiak
ikusi ditut galdez
zenbaiten begiak.
Zer irtenbide duen
gure gazteriak,
nolako etorkizuna
gizarte eriak ...
Zer erantzun lezake
gaur bertsolariak?
2. Gau erdian jarri naiz
leihotik begira,
eguzkia jaiotzen
deneko mendira.
Galdera bihotzean
jira eta bira,
zeruaren gainean
izarren distira.
Egun gozoagoak
etorriko dira.
3. Geroak sortzen digu
askori zalantza,
bihotzeraino sartzen
sarritan arantza.
Noizbait loratuko da
gure esperantza
eta martxan hasiko
askatasun-dantza.
Gaua hartzen ari da
egunaren antza..
4. Hona hemen dardaraz
nire erantzuna,
gauaren isilean
izarrei entzuna.
Geroak jaso beza
honen oihartzuna,
gazteak berezkoa
du etorkizuna.
Ez ahal da gailenduko
gaiztoen lizuna!
5. Gazteria batetik
bestetik herri hau,
akuilu bikoitz horrek
kezkatan jartzen nau.
Historiak apurtu
ditu hainbat arau,
bi eta bi ez dira
gertatu beti lau,
goizik gabe geratu
izan da zenbait gau.
6. Sarri izaten dugu
duda agintaru,
nork ez du etsipena
barnean nabari?
Baina gauko honetan,
izarrak gidari,
lekua utzi diot
itxaropenari.
Gauaren babesean
hasi naiz kantari.



7. Geroaren beldurrez
zaitugun gaztea,
guztiori dagokigu
goiari eustea.
Ez zaigu bidezkoa
negarrez hastea,
orain egin beharra
biharko uztea.
Erabat ustela da
al ferren ustea.

9. Lehenaldia dugu
gehienetan maisu,
zure etorkizuna
garaiz presta ezazu.
Atea eskuhutsik
jotzen badiozu,
gero aurrerantzean
jai izango duzu,
axolagabe izana
damutuko zaizu.

8. Orainaldi duzu
geroaren giltza,
mirarien atzetik
alferrik zabilta.
Hasi txikian dago
gordea zuhaitza,
neguaren golkoan
udaren emaitza.
Hutsetik zerbait sortzen
hain da gauza gaitza.

10. Honekin bukatzen dut,
gazte adiskidea,
lagun zaitut kezkatan,
lanean kidea.
Ibiliz egin ohi da
gaur arte bidea,
jardunean daukazu
zeure irtenbidea.
Eskurik behar bada,
torizu nirea.

doinua: hamalau heriotzarena

pello esnal

TXORIA



Txori bat ikusi dut
kabitik jausita
oso triste jarri naiz
hura ikusita
Lurrean han zegoen
hezurrak hautsita
ez dut gehiago entzungo
nik haren musika.

Oso polita zinen
ta kantari fina
zure doinu hori zen
guztiz atsegina
Zu hala ikustean
hartzen dudana mina!
nahiago nuke oraindik
bizirik bazina.

elgoibarko bertso eskola

ONGARRI ri esker

